





2026KO MAIATZEKO PROGRAMAZIOA



Cinco lobitos
(Alauda Ruiz de Azúa, Espainia)
2022

AURKIBIDEA

2026KO MAIATZA

SAIO BEREZIAK

ZINEMA ARKITEKTURA

NAFARROAKO FILMOTEKA

AMATASUNAK ZINEMAN

EUROPAKO ZINEMA

ATENEOK AURKEZTEN DU...

PUNTO DE VISTA FOKUA

Matronas (Sages-femmes)

Léa Fehner (Frantzia, 2023)

Asteartea 5 | 19:00h.

Or. 5

La restauración (The Restoration)

David M. Mateo (Espainia, 2024)

Osteguna 21 | 19:30h.

Or. 6

E.1027: Eileen Gray and the House by the Sea

Beatrice Minger (Suitza, 2024)

Asteazkena 6 | 19:00h.

Or. 8

Playtime

Jacques Tati (Frantzia, 1967)

Asteazkena 13 | 19:00h.

Or. 9

Forested Future

Petr Krejčí (Erresuma Batua,

República checa, 2025)

Asteazkena 20 | 19:00h.

Or. 10

La sapienza

Eugene Green

(Frantzia, 2014)

Asteazkena 27 | 19:00h.

Or. 11

Palmarés Navarra Internacional Film Festival 2025

[5 proyecciones]

Hainbat egile (2025)

Osteguna 7 | 19:30h.

Or. 13-14

Nina

Andrea Jaurrieta (Espainia, 2024)

Osteguna 16 | 19:30h.

Or. 15

The Florida Project

Sean Baker (AEB, 2017)

Ostirala 8 | 19:30h.

Or. 17

Madres verdaderas (Asa ga kuru)

Naomi Kawase (Japonia, 2020)

Ostirala 22 | 19:00h.

Or. 18

Cinco lobitos

Alauda Ruiz de Azúa

(Espainia, 2022)

Ostirala 29 | 19:30h.

Or. 19

Green border (Zielona granica)

Agnieszka Holland

(Polonia, 2023)

Larunbata 9 | 19:00h.

Or. 21

Recién nacidas (Jeunes mères)

Hermanos Dardenne

(Belgika, 2025)

Larunbata 9 | 19:00h.

Or. 22

Tres kilómetros al fin del mundo (Trei kilometri până la capătul lumii)

Emanuel Pârvu (Errumania, 2024)

Larunbata 23 | 19:00h.

Or. 23

La mercancía más preciosa (La plus précieuse des marchandises)

Michel Hazanavicius

(Frantzia, 2024)

Larunbata 30 | 19:00h.

Or. 24

Yi Yi

Edward Yang (Taiwan, 2000)

Ostirala 15 | 18:30h.

Or. 26

Palmarés Punto de Vista 2026

Hainbat egile (Hainbat, 2025)

Osteguna 28 | 19:30h.

Or. 27

Tres kilómetros al fin del mundo (Trei kilometri până la capătul lumii)

Asteazkena 6 | 19:00h. | Tafalla

Or. 28

La mercancía más preciosa (La plus précieuse des marchandises)

Ostirala 22 | 19:00h. | Auritz


Or. 29

Informazio erabilgarria

Or. 30

MAYO MAIATZA 2026

PROGRAMACIÓN PROGRAMAZIOA



SAIO
BEREZIAK



ZINEMA
ARKITEKTURA



NAFARROAKO
FILMOTEKA



AMATASUNAK
ZINEMAN



EUROPAKO
ZINEMA



ATENEOK
AURKEZTEN DU...



PUNTO DE
VISTA FOKUA

MARTES ASTEARTEA	MIÉRCOLES ASTEAZKENA	JUEVES OSTEGUNA	VIERNES OSTIRALA	SÁBADO LARUNBATA
<p>5 -19:00h.</p> <p>SAIO BEREZIA</p> <p>Matronas (<i>Sages-femmes</i>) Léa Fehner (Frantzia, 2023) 99' - V.O.S.E - SARRERA DOAN</p>	<p>6 -19:00h.</p> <p>ZINEMA ARKITEKTURA</p> <p>E.1027: Eileen Gray and the House by the Sea Beatrice Minger (Suitza, 2024) 89' - V.O.S.E - SARRERA DOAN</p>	<p>7 -19:30h.</p> <p>NAFARROAKO FILMOTEKA</p> <p>Palmarés Navarra Internacional Film Festival 2025 [5 proiektzio] Hainbat egile (2025) 1€</p>	<p>8 -19:30h.</p> <p>AMATASUNAK ZINEMAN</p> <p>The Florida Project Sean Baker (AEB, 2017) 115' - V.O.S.E - 3€</p>	<p>9 -19:00h.</p> <p>EUROPAKO ZINEMA</p> <p>Green Border (<i>Zielona granica</i>) Agnieszka Holland (Polonia, 2023) 153' - V.O.S.E - SARRERA DOAN 📍 Civivox Condestable</p>
<p>12</p>	<p>13 -19:00h.</p> <p>ZINEMA ARKITEKTURA</p> <p>Playtime Jacques Tati (Frantzia, 1967) 123' - V.O.S.E - SARRERA DOAN</p>	<p>14 -19:30h.</p> <p>NAFARROAKO FILMOTEKA</p> <p>Nina Andrea Jaurrieta (España, 2024) 105' - 1€</p>	<p>15 -18:30h.</p> <p>ATENEOK AURKEZTEN DU...</p> <p>Yi Yi Edward Yang (Taiwan, 2000) 173' - V.O.S.E - 3€</p>	<p>16 -19:00h.</p> <p>EUROPAKO ZINEMA</p> <p>Recién nacidas (<i>Jeunes mères</i>) Hermanos Dardenne (Belgika, 2025) 104' - V.O.S.E - SARRERA DOAN 📍 Civivox Condestable</p>
<p>19</p>	<p>20 -19:00h.</p> <p>ZINEMA ARKITEKTURA</p> <p>Forested Future Petr Krejčí (Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, 2025) 90' - V.O.S.E - SARRERA DOAN</p>	<p>21 -19:30h.</p> <p>SAIO BEREZIA</p> <p>La restauración (<i>The Restoration</i>) David M. Mateo (España, 2024) 78' - V.O.S.E - 3€</p>	<p>22 -19:00h.</p> <p>AMATASUNAK ZINEMAN</p> <p>Madres verdaderas (<i>Asa ga kuru</i>) Naomi Kawase (Japonia, 2020) 139' - V.O.S.E - 3€</p>	<p>23 -19:00h.</p> <p>EUROPAKO ZINEMA</p> <p>Tres kilómetros al fin del mundo (<i>Trei kilometri până la capătul lumii</i>) Emanuel Părvu (Errumania, 2024) 105' - V.O.S.E - SARRERA DOAN 📍 Civivox Condestable</p>
<p>26</p>	<p>27 -19:00h.</p> <p>ZINEMA ARKITEKTURA</p> <p>La Sapienza Eugene Green (Frantzia, 2024) 107' - V.O.S.E - SARRERA DOAN</p>	<p>28 -19:30h.</p> <p>PUNTO DE VISTA FOKUA</p> <p>Palmarés Punto de Vista 2026 Hainbat egile (Hainbat, 2025) 3€</p>	<p>29 -19:30h.</p> <p>AMATASUNAK ZINEMAN</p> <p>Cinco lobitos Alauda Ruiz de Azúa (España, 2022) 104' - 3€</p>	<p>30 -19:00h.</p> <p>EUROPAKO ZINEMA</p> <p>La mercancía más preciosa (<i>La plus précieuse des marchandises</i>) Michel Hazanavicius (Frantzia, 2024) 81' - V.O.S.E - SARRERA DOAN 📍 Civivox Condestable</p>

Filmoteca de Navarra | Nafarroako Filmoteka




Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua



PUNTO DE VISTA



SAIO BEREZIAK



Maiatzean, bi sesio berezi proposatzen ditugu. Hilaren 5ean, asteartean, hasiko gara Léa Fehnerren **Matronas** (2023) proiektioarekin. Frantziai produktua, *Matronas* osasun publikoaren eta oso ezaguna ez den lanari oda bat da, bizitza berri batez erditzea bezalako une garrantzitsu batean dauden profesionalena. Filmaren emanaldia Nafarroako Liburutegiarekin eta Emagin Nafarroako Elkartearekin elkarlanean antolatu da, eta kolektiboak aurkezpena eta elkarriketa burutuko du.

David M. Mateoren **La restauración** (2024) filmarekin jarraituko dugu, Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Filma Espainiako produkzio independentea eta artearen munduari lotutako drama psikologikoa da; zehazki, artearen garrantziari lotutakoa. Zuzendariaren hitzetan, "denbora eta dimentsioak igarotzen ditu". Proiektioa babesteko, David M. Mateo zuzendariak filma aurkeztuko du eta jendearekin elkarriketa bat izango du.



MATRONAS (*Sages-femmes*)

Asteartea 5 | 19:00h.



Sofia eta Louise emagin lizentziatu berriak dira. Beren lanbidea ilusioz eta itxaropenez beteta dagoen arren, laster ohartuko dira ospitale publiko bateko eguneroko lanaren erronkei aurre egin behar dietela osasun-arreta eskaseko sistema baten pean.

Matronas Léa Fehner zinemagilearen hirugarren film luzea da, sei emaginen bizipenetan inspiratua eta Frantziako osasun-sistemaren errealitatea salatzen duena. Filmak film luze onenaren Gazte Epaimahaiaren Saria jaso zuen 2023ko Gijongo Zinemaldian eta Epaimahaiaren Sari Ekumenikoa Berlingo Zinemaldian.

Zuzendaritza: Léa Fehner

Gidoia: Léa Fehner, Catherine Paillé

Argazkilaritza: Jacques Girault

Musika: José Fehner

Antzezleak: Héloïse Janjaud, Myriem Akeddiou, Khadija Kouyaté, Quentin Vernede, Tarik Kariouh, Lucie Mancipoz, Marine Gesbert

Herrialdea, Urtea | **Iraupena**
Frantzia, 2023 | 99 min

Hizkuntza

B.O frantsesez, azpitoluak espainieraz

Aurkezpena: Nafarroako Emaginen Elkarteak

LA RESTAURACIÓN (The Restoration)

Osteguna 21 | 19:30h.



Marcia Madrilen bizi da bere seme, senar eta anaiarekin batera, eta Museo Nazionalean lan egiten du zaharberritzaile gisa. Egun batean Marcia senarra desagertu delako sentsazio kezkarriarekin esnatzen da. Bere kabuz non dagoen bilatzea erabakiko du.

Zuzendaritza: David M. Mateo

Gidoia: Laura de Dios

Argazkilaritza: Willy Jauregui

Musika: Hugo Race

Antzezleak: Lana Aubrey, Sonia Al-
marcha, Ben Temple, Monti Castiñei-
ras, Jack Forsyth-Noble, Dylan Torrell

 **Herraldea, Urtea**


Espainia, 2024

 **Iraupena**

78 min

 **Hizkuntza**

B.O ingelesez, azpitoluak espainieraz

 Aurkezpena eta elkarrizketa **David M. Mateorekin**

ZINEMA ARKITEKTURA 16 Edizioa



Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, Nafarroako Ordezkaritzak, Nafarroako Filmotekarekin lankidetzan, **Zinema Arkitektura** zikloaren edizio berri bat aurkezten du, arkitektura bere irudi, kontakizun eta marruskaduretatik pentsatzeko modu gisa.

Arkitektura ez da eraikia izatera mugatzen: eguneroko bizitzan sartu eta erabat agerian jarri gabe antolatu eta baldintzatzen du. Zinemak, aldiz, erakutsi egiten du, esperientzia bihurtzen du, eta normalean ezkutuan egoten dena erakusten du.

Lau filmen bidez, zikloak arkitektura ulertzeko moduen eta horiek gizartearekin, memoriarekin, hiriarekin eta paisaiarekin duten harremanaren gaineko begirada plurala proposatzen du.

E.1027: Eileen Gray and the House by the Sea (2024) lanean, arkitekturaren historia bere egilearenarekin gurutzatzen da, Eileen Grayren irudia eta memoria eta errekonozimenduari buruzko eztabaidak berreskuratuz.

Jacques Tatiren **Playtime** (1967) lanean, hiri modernoaren harreman ezegonkorren sistema bihurtzen da. Arkitektura gainazal, erritmo eta portaera-egitura gisa agertzen da, ideal modernoaren kontraesanak agerian utziz.

Forested Future (2025) lanak orainera eramaten du arreta, iraunkortasunak eraikitzeke modua eta ingurune naturalarekiko harremana birdefinitzen baititu.

Sapienza (2014) lanak kontenplaziozko begiradarekin ixten du ibilbidea, espazioa esperientzia, pentsamendua eta memoria bihurtuz.

Ziklo honen bidez, Arkitektoen Elkargoak berretsi egiten du arkitekturarekin duen konpromisoa, kultura bizia den aldetik: herritarrei irekita dagoen ezagutza-modu bat, hausnarketa sortzeko eta bizi garen espazioei berriro begiratzera gonbidatzeko gai dena.

Pamplona, miércoles mayo 2026

Filmoteca de Navarra


P.º Antonio Pérez Goyena, 3
Pamplona-Iruña
19:00h - Entrada libre

16º CICLO ARQUITECTURA DE CINE

ARKITEKTURAZKO ZINEMAREN 16.ZIKLOA

- 6 mayo **E.1027 Eilen Gray and House by the sea**
Dirección: Beatrice Minger
Suiza / V.O.S.E. 2024
89'
Presenta: **Marta Jauregui**, arquitecta
- 13 mayo **Playtime**
Dirección: Jacques Tati
Francia / V.O.S.E. 1967
124'
Presenta: **Jokine Crespo**, arquitecta
- 20 mayo **Forested Future**
Dirección: Petr Krejčí
Reino Unido, República Checa
V.O.S.E. 2025
90'
Presenta: **David Venables**, director europeo AHEC + Mesa Redonda
- 27 mayo **La Sapienza**
Dirección: Eugène Green
Francia/ V.O.S.E. 2014
107'
Presenta: **Emilio Pardo**, arquitecto

Organiza:



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA

www.coavn.org

Colaboran:



A. HERCE

E.1027: EILEEN GRAY AND THE HOUSE BY THE SEA

Asteazkena 6 | 19:00h.



Eileen Grayk 1929an bere babeslekua **E.1027** Kosta Urdinean eraiki zuenean, ez zuen imajinatu maisulan bihurtuko zenik edo Le Corbusierren obsesio gaixoa piztuko zuenik. **E.1027**, bere eta Jean Badovici maitalearen inzialak ezkututzen dituen mezu kriptiko bat, zeinarekin eraiki baitzuen, gaur egun erreferentziatzko obra bat da, eta haren diseinu abangoardistak bakar egiten du.

Eileen Grayren burura egindako bidaia zinematografikoa, aro modernoko arkitektozik eta diseinatzailerik eraginkorrenetakoa. Filmak denboran zehar ibilbide bat egiten du, munduko etxe berezietako baten mila bizitzak erakusten dizkiguna eta Eileen Gray emakume arkitektoa dela aldarrikatzen duena, nabarmenduz zein desberdintasun eta zailtasun izan zituen nagusiki maskulinizatutako lanbide batean.

Zuzendaritza: Beatrice Minger, Christoph Schaub

Gidoia: Beatrice Minger

Argazkilaritza: Ramon Giger (C)

Musika: Peter Scherer

Herialdea, Urtea | **Iraupena**
Suitza, 2024 | 89 min

Hizkuntza

B.O ingelesez eta frantsesez, azpituak espainieraz

Aurkezpena eta elkarrizketa **Marta Jauregui**

PLAYTIME

Asteazkena 13 | 19:00h.



Turista amerikar talde bat European zehar bidaia bat egiten ari da, eta eguneko hiriburu bat bisitatzea aurreikusten du. Parisera iristean, aireportua Erromakoaren berdin-berdina dela konturatzen dira, errepi-deak Hanburgokoen berdinak direla eta farolek New Yorkekoen antz bitxia dutela. Laburbilduz, eszenatokia ez da hiri batetik bestera aldatzen. Eta ezin dutenez Paris ezagutu, benetako paristarrekin hogeita lau ordu pasatzearekin konformatuko dira, horien artean Hulot jauna.

Zuzendaritza: Jacques Tati

Gidoia: Jacques Tati, Jacques Lagrange

Argazkilaritza: Jean Badal, Andréas Winding (C)

Musika: Francis Lemarque

Antzezleak: Jacques Tati, Barbara Dennek, Jacqueline Lecomte, Valérie Camille, France Rumilly, Rita Maiden, Erika Dentzler

Herrialdea, Urtea
Frantzia, 1967

Iraupena
123 min

Hizkuntza

B.O frantsesez, azpтитuluak espainieraz

Aurkezpena eta elkarrizketa **Jokine Crespo**

FORESTED FUTURE

Asteazkena 20 | 19:00h.



Zuhaitzekin eta basoekin dugun harreman konplexua aztertuz, *Forested Future* naturarekin partekatzen dugun lotura sakona berrezartzeko lan egiten duten pertsona eta komunitateei jarraitzen die. Basozain, artisau eta ekologoengandik hasi eta Wisconsingo Menominee tribu indiarrerraino, nortasun zentzua bizi eta lan egiten duten Palaches mendietako basoetatik bereizi ezin diren pertsonen ahotsa ematen die dokumental honek.

Bere istorioen bidez, *Forested Future*-k uste du zura ekoizteko eta erabiltzeko modua aurre egin beharreko arazo larrietako batzuen konponbidearen parte izan litekeela. Bizitzaren mugak gainditzeko eta kudeaketa harmoniatu baten tradizioak besarkatzen ikasi dezakegun galdetzen du, naturaren birsortzeko ahalmena aprobeztatzeko gure behar materialak asetuz.

Zuzendaritza: Petr Krejčí

Gidoia: Petr Krejčí, Fred Pearce, Zdeněk Blaha

Argazkilaritza: Šimon Dvořáček, Petr Krejčí (C)

Musika: Dominik Dolejší, Adam Levý

Herraldea, Urtea

Erresuma Batua-Txekiar Errepublika, 1967

Iraupena

91 min

Hizkuntza

B.O ingelesez, azpтитuluak espainieraz

Aurkezpena eta elkarrizketa **David Venables**, AHEC (American Hardwood Export Council) europako zuzendaria

LA SAPIENZA

Asteazkena 27 | 19:00h.



Alexandre Schmitt, karrera bikaina duen arkitekto frantziarra, eta bere emaztea, Aliénor, gizarte-testuinguru zailtan espezializatutako soziologoa, beren lanbideei buruzko kezka sakona duen bikotea da. Bien artean isiltasun bat sortu da, harremana kolokan jar dezakena, atzera bueltarik gabe. Egoera horretatik ateratzeko beharraz jabeturik, Alexandrek berriro ekingo dio duela denbora gehiegi bertan beharra utzitako proiektu garrantzitsu bati: Francesco Borromini arkitekto barrokoari buruzko testu bat idaztea. Bere lanarekiko distantzia hartu beharrean, Alienorrek berarekin joatea erabakitzen du, baina Stresan bere patuak une batez banatzen dira berriro elkartzeko, guztiz beharrezkoa den azken berpizkunde moduko batean.

Zuzendaritza eta gidioia:

Eugene Green

Argazkilaritza: Raphaël O'Byrne (C)

Antzezleak: Fabrizio Rongione, Christelle Prot, Ludovico Succio, Ariana Nastro

Herrialdea, Urtea

Frantzia, 2014

Iraupena

107 min

Hizkuntza

B.O frantsesez, azpitoluak espainieraz

Aurkezpena eta elkarrizketa **Emilio Pardo**

NAFARROAKO FILMOTEKA



Atal honetan Nafarroarekin lotura duten produkzio zinematografiko guztiak erakusten dira, edozein formatutan. Filmoteka batean, kontserbatu eta zabaltzeko interesgarriak diren ikus-entzunezko material guztiak biltzen dira; Nafarroako Filmotekaren proiektzio-aretoan, obra horiek sustatzeko eta aintzatesteko eszenatoki izateko bokazioari jarraituz, dokumentu horiek biltzen dira atal honetan.

Oraingo honetan, bi saio programatuko ditugu maiatzean zehar. Lehenik eta behin, Nafarroan egiten diren zinemaldiei laguntzeko ildoan, *NIFF (Navarra Internacional Film Festival)* jaialdiaren azken edizioeko palmareseko piezak proiektatuko ditugu. Nazioarteko programa zabal eta askotarikoa da, gizarte kutsuko programazio-ildoak du eta zazpi edizio bete zituen 2025ean.

Bigarrenik, ***Nina*** (2024) Andrea Jaurrieta zuzendari nafarraren fikziozko bigarren film luzearen proiektioa izango dugu. Filmotekak haren lana programatu ohi du, bai film luzeetan, bai film laburren arloan. *Nina* western kutsua eta Almodovarren unibertsoa ukituak dituen thriller indartsu bat da, Andrea Jaurrietaren estiloa eta Espainiako azken emakumezko zuzendarien nortasun gehien duen zinemagileetako bat bezala sendotzen dituen.

PALMARÉS NIFF 2025

Osteguna 7 | 19:30h.

[1/5] PIPIOLOS



Pilar eta Isabel. Mario eta Jaime. Mi ama. Bi seme-alaba. Unitate familiar berria.

Udako oporretan, 13 urteko seme-alabek beren harremana eta maitasuna ulertu beharko dute, izan beharko dutena onartzeko: anai-arrebak.

Fikziozko Film Labur Onenaren Urrezko NIFF Saria

Zuzendaritza: Daniel Sánchez Arévalo

Herraldea, Urtea
Espainia, 2025

Iraupena
24 min

Hizkuntza
B.O espainieraz

[2/5] BAILE CON LA MUERTE



Sofiak, estatuko gaizkile bilatue-nak, ezin du saihestu bere patua jazarpen baten ondoren aurkitzea. Heriotzarekin aurrez aurre elkartze honetan, lehen begiratuan maitasunak bultzatutako dantza bat hasten da.

Animaziozko Film Labur Onenaren Urrezko NIFF Saria

Zuzendaritza: Carlota Masso

Herraldea, Urtea
Espainia, 2025

Iraupena
4 min

Hizkuntza
Elkarrizketa gabea

[3/5] RELAX



Errumaniako ijito-familia baten bizikidetzari buruzko bere azken filma filmatu ondoren, zinema-zuzendari batek antsietatea sentituko du filmatu duenaren inguruan, eta bere buruari galdetuko dio ea protagonistei benetan zerbait ekarriko dien edo ariketa bat baino ez den.

Dokumental Film Labur Onenaren Urrezko NIFF Saria

Zuzendaritza: J.L. Maldonado

Herraldea, Urtea
Espainia, 2025


Iraupena
14 min

Hizkuntza
B.O espainieraz

PALMARÉS NIFF 2025

Osteguna 7 | 19:30h.

[4/5] **DEPREDADOR**



Bi lagun leku bakarti batetik bi-daiatzen ari direla, autoak matxurara tragiko bat izango du.

Gidoi Onenaren Urrezko DAMA NIFF Saria

Zuzendaritza: Javier Fesser

Herraldea, Urtea | **Iraupena**
Espainia, 2025 | 7 min

Hizkuntza
B.O espainieraz

[5/5] **INSALVABLE**



Mauro luxuzko jatetxe batean afaltzeko geratu da Anjelekin, duela aste batzuk bizia salbatu zion ezezagunarekin.

Jaialdiaren Film Labur Onenaren Urrezko NIFF Saria

Pedro Casablanc-en Zilarrezko NIFF Saria Interpretazio Onenari

Zuzendaritza: Javier Marco

Herraldea, Urtea | **Iraupena**
Espainia, 2025 | 18 min

Hizkuntza
B.O espainieraz

Aurkezpena: Joaquín Calderón

NINA

Osteguna 14 | 19:30h.



Ninak hazi zen kostaldeko herrira itzultzea erabakiko du, eskopeta bat poltsan duela, helburu zehatz batekin: Pedro idazle ospetsuaz mendekatzea. Bere jaioterriarekin, iraganeko oroitzapenekin eta Blas haurtzaroko lagunarekin elkartzeak mendekua bere aukera bakarra ote den birplanteatzera bultzatuko du.

Nina thriller bat da, emakume western garaikide bat, non iragana eta oraina mendeku istorio batean elkartzen diren.

Zuzendaritza eta gidoia:

Andrea Jaurrieta

Argazkilaritza: Juli Carné Martorell

Musika: Zeltia Montes

Antzezleak: Patricia López Arnaiz, Darío Grandinetti, Aina Picarolo, Iñigo Aranburu, Mar Sodupe, Ramón Agirre

 **Herraldea, Urtea**

Espainia, 2024

 **Iraupena**

105 min

 **Hizkuntza**

B.O espainieraz

 Aurkezpena: **Andrea Jaurrieta**

AMATASUNAK ZINEMAN



Maiatza amatasunaren hilabetea da. Arlo komertzial eta ospakizun erlijiosoez haratago, Nafarroako Filmotekatik ziklo bat proposatzen dugu, hain garrantzitsua den gai batean begirada zinematografiko garaikidea jartzeko hiru modu dituen, eta emakumeak bere rol soziala eraldatu duen heinean gizartean jorratzen den moduan eraldatu dena.

Lehenik eta behin, **The Florida Project** (2017) proiektatuko dugu, Sean Baker zinema-zuzendari iparramerikarrarena, bere herrialdeko gizarte-maila ahulenak erretratatzeko espezializatua, amets amerikarraren ezkutuko aurpegiaren erretratu bat osatuz. The Florida Project-en, Bakerrek leihobat irekitzen dio haurtzaroko ametsen periferiari, motel merkeen, arreta gabeko haurren eta prekarietateari aurre egiten dioten ama helduen artean. Amerikako zinema independentearen benetako harribitxia.

Madres verdaderas (2020) lanean, Naomi Kawasek bere estilo delikatu eta poetikoa erakusten du adopziozko amen eta seme-alaben istorio batean, emakume bat ama izatea eragiten duten arrazoiei buruzko aukera konplexuarekin. Adopzioa, familia-harremanak eta gatazkak zinemagile japoniarren sentsibilitate bikainarekin filmatuak.

Azkenik, **Cinco Lobitos** (2022) lanean, Alauda Ruiz de Azuaren opera primak, ama izaten ez dakien emakume baten erretratuak, jarraibideen eskuliburuarekin ez datorren amatasunaren noraezak, eta familia-harremanak erretratatzeko Alaudaren trebetasun frogatuak, *Cinco Lobitos* film espainiar berrienetako bat egiten dute.

THE FLORIDA PROJECT

Ostirala 8 | 19:30h.



Moonee, 6 urteko neskatila batek eta bere lagunek *Disneyworld*-etik oso gertu dagoen motel txiki batean igaroko dute uda; bitartean, gurasoek eta inguruan dituzten gainerako helduek krisiaren ondorioak pairatzen dituzte oraindik.

The Florida Project AEBetako promesa handiari egindako kritika ironiko eta suntsitzailea da, eta hurrek errealitatea helduek ez bezala nola hautematen duten islatzen du. Filmak aktore profesional bakarra du, William Dafoe, Oscar eta Urrezko Globo sarietan Antzezataldeko Aktore Onenaren proposamena jaso zuena.

Zuzendaritza: Sean Baker

Gidoia: Chris Bergoch, Sean Baker

Argazkilaritza: Alexis Zabe

Musika: Lorne Balfé

Antzezleak: Brooklynn Prince, Bria Vinaite, Willem Dafoe

Herrialdea, Urtea

AEB, 2017

Iraupena

115 min

Hizkuntza

B.O ingelesez, azpituluak espainieraz

Aurkezpena: **Cristina Leza**

MADRES VERDADERAS

(Asa ga kuru)

Ostirala 22 | 19:00 h.



Haurdun geratzeko borroka luze eta asegabe baten ondoren adopzio-elkarte batek konbentzituruta, Satokok eta bere senarrak haur bat adoptatzea erabakitzen dute. Urte batzuk geroago, familia kolokan dago Hitariren mehatxuarekin, ama biologikoa dela dioen neska ezezaguna. Satokok Hitari aurrez aurre jartzea erabakiko du.

Madres verdaderas narratiba konplexu batean garatzen da (adopzio eta amatasun istorio bat), argi, garbi eta umiltasun handiz filmatua. Inspirazio humanista, Cannesko eta Donostiako Zinemaldietan kritika positiboa jaso zuen istorio hunkigarri baten zerbitzura.

Zuzendaritza: Naomi Kawase

Gidoia: Naomi Kawase, Izumi Takahashi

Argazkilaritza: Yuta Tsukinaga, Naoki Sakakibara

Musika: Akira Kosemura, An Ton That

Antzezleak: Hiromi Nagasaku, Arata Iura, Aju Makita

Herrialdea, Urtea | **Iraupena**
Erresuma Batua, 2015 | 140 min

Hizkuntza

B.O japonieraz, azpigituluak espainieraz

Aurkezpena: **María Guzmán**

CINCO LOBITOS

Ostirala 29 | 19:30h.



Amaia ama izan berri da eta ez dauka oso argi egin beharrekoa. Bikotekideak lana duela eta aste batzuez kanpoan denez, Euskal Herriko kostaldeko herri polit batean dagoen gurasoen etxera itzultzea erabaki du, eta, horrela, haurra zaintzeko ardura partekatuko du. Amaiak ez dakiena da, orain ama izan arren, ez diola alaba izateari utziko.

Zuzendaritza eta gidioa:

Alauda Ruiz de Azúa

Argazkilaritza: Jon D. Domínguez

Musika: Aránzazu Calleja

Antzezleak: Laia Costa, Susi Sánchez, Ramón Barea y Mikel Bustamante

Herrialdea, Urtea | **Iraupena**
Espainia, 2022 | 104 min

Hizkuntza

B.O. espainieraz

Aurkezpena: **Lourdes Esqueda**

EUROPAKO ZINEMA



Maiatzaren 9an Europaren Eguna ospatzen dugula eta, Nafarroako Gobernuak herritarrak animatu nahi ditu eskualdeetatik eraikitako eta Ongizate Estatua sendotuko duen Europa sozialago, kohesionatuago eta pluralago baten eraikuntzan parte hartzera. Europa aniztasunean batua.

Esparru honetan, aurreko edizioetan bezala, eta Nafarroako Filmotekarekin lankidetzan, Europako Zinema Garaikideko Ziklo bat antolatuko digu, Europa Sortzailea programak finantzaturako filmen proiektioekin. Ziklo honetan zehar, maiatzean zehar, Europako bizimoduaren erakusgarri diren film luzeekin gozatu ahal izango dugu.



EUROPE DIRECT
Navarra · Nafarroa

GREEN BORDER (*Zielona granica*)

Larunbata 9 | 19:00 h.



Bielorrusia eta Poloniaren arteko "muga berdea" osatzen duten baso zingiratsu eta traizionatuetan, Europar Batasunera iritsi nahi duten Ekialde Ertaineko eta Afrikako errefuxiatuak Alexander Lukashenko diktadore bielorrusiarrek zinikoki diseinatutako krisi geopolitikoan harrapatuta daude. Europa zirikatze ahaleginean, errefuxiatuak mugara erakartzen dira, EBrako urrats erraz bat agintzen duen propagandarekin. Ezkutuko gerra honetan gurutzatuko dira Julia, bere bizitza erosoari uko egin dion aktibista gazte bat, Jan, mugazain gazte bat, eta siriar familia bat.

Zuzendaritza: Agnieszka Holland
Gidoia: Gabriela Lazarkiewicz-Sieczko, Maciej Pisuk, Agnieszka Holland
 Argazkilaritza: Tomasz Naumiuk (B/N)
Musika: Frédéric Vercheval
Antzezleak: Behi Djanati Atai, Agata Kulesza, Piotr Stramowski, Jalal Altawil, Maja Ostaszewska, Tomasz Wlosok

Herialdea, Urtea | **Iraupena**
 Polonia, 2023 | 153 min

Hizkuntza
 B.O plonieraz, azpitoluak gaztelaniaz

Civiox Condestable

Aurkezpena: Julio Mazarico

RECIÉN NACIDAS (*Jeunes mères*)

Larunbata 16 | 19:00 h.



Jessica, Perla, Julie, Ariane eta Naïma ama gazteentzako aterpe batean bizi dira. Egoera zailean hazi ziren bost nerabe dira, eta haientzat eta haien seme-alabentzat bizitza hobea eraikitzeko borrokan ari dira.

Zuzendaritza y Gidoia: Jean-Pierre Dardenne, Luc Dardenne

Argazkilaritza: Benoît Dervaux (C)

Antzezleak: Elsa Houben, Babette Verbeek, Janaina Hallow, Lucie Laurelle, Samia Hilmi, India Hair

Herrialdea, Urtea
Belgika, 2025

Iraupena
104 min

Hizkuntza

B.O frantsesez, azpitoluak gaztelaniaz

Civiox Condestable

Aurkezpena: **Miguel Zozaya**

TRES KILÓMETROS AL FIN DEL MUNDO *(Trei kilometri până la capătul lumii)*

Larunbata 23 | 19:00 h.



Danubioko Deltako komunitate kontserbadore batean girotuta, gay nerabe baten autoaurkikuntza-bidaiak talka egiten du haren gurasoek eta bizilagunek defendatutako balio tradizionalekin.

Zuzendaritza: Emanuel Pârnu

Gidoia: Miruna Berescu,
Emanuel Pârnu

Argazkilaritza: Silviu Stăvilă (C)

Antzezleak: Ciprian Chiujdea, Bogdan
Dumitrache, Laura Vasiliu, Valeriu
Andriută, Adrian Titieni, Ingrid Berescu

 **Herraldea, Urtea**

Errumania, 2024

 **Iraupena**

105 min

 **Hizkuntza**

B.O errumanieraz, azpitoluak
gaztelaniaz

 Civivox Condestable

Aurkezpena: **José Félix Collazos**

LA MERCANCÍA MÁS PRECIOSA

(La plus précieuse des marchandises)

Larunbata 30 | 19:00 h.



Bigarren Mundu Gerran, familia judu bat Auschwitzera deportatzen dute. Kontzentrazio esparruranzko trenean, etsiak jota, aitek elurretara botatzen du alabetako bat, eta aizkolari bikote xume batek erreskatatzen du neskatoa. "Salgai baliotsu" hura adoptatzean, betirako aldatuko dira haien eta inguruan daudenen bizitzak.

Zuzendaritza y Gidoia:

Michel Hazanavicius

Musika: Alexandre Desplat

Herraldea, Urtea

Frantzia, 2024

Iraupena

81 min

Hizkuntza

B.O frantzesez, azpituluak gaztelaniaz

Civivox Condestable

Aurkezpena: **Cristian Ruiz**

ATENEOK AURKEZTEN DU...



Yi Yi

Yi Yi-ren (2000) 25. urteurrena dela eta 4K-an zaharberritze filma, Nafarroako Ateneoak zinema garaikidearen harribitxi handienetako bat berreskuratuko du bere hileko zikloan. Edward Yangek zuzendua (1947-2007), eta Cannesko Zinemaldian estreinatu zenetik (Zuzendari Onenaren saria eta kritikaren babes handia lortu zituen), hainbat zinemagile eta ikuslerengan arrasto ezabaezina utzi duen film baten aurrean gaude.

Bere azken filmean, Edward Yang, Taiwango Olatu Berriaren adierazgarrietako bat Hou Hsiao-hsien eta Tsai Ming-liangekin batera eta *Una historia de Taipei* (*Qingmei Zhuma*, 1985) edo *Un día de verano* (*Gu ling jie shao nian sha ren shi jian*, 1991) filmen egilea, bere zinemari forma eman zioten kezka tematiko eta formal guztiak kondatzen eta garbitzen dituela dirudi. Askok izan dira *Yi Yi-ri* buruz hitz egiteko erabili diren kalifikatzaileak, baina haien sentsibilitatea edo dotorezia aipatzeaz gain, denak bat datoz gizatasunaz eta bizitzaz hitz egitean. Izan ere, Edward Yangek berak esango luke bere filmei eta zinemari buruz:

"Beti iruditu zait zinemak eta arteak ez dutela zerikusirik nazionalitatearekin, gauza bakar batekin baizik, gizatasunarekin. Gizakiak garen heinean, zinemak bizitzaren esperientziatik hurbilen dagoena ematen digu. *Yi Yi-n* Fattyk osabaren esaldi bat aipatzen du: "Zinema asmatu zenetik hiru aldiz bizi gara". Bai, nik ere gauza bera pentsatzen dut. Ikusleari beste bizitza bat bizitzeko aukera eskaintzen ari gara".



YI YI

Ostirala 15 | 18:30 h.



NJ Jian, bere emazte Min-Min eta bi seme-alabek klase ertaineko familia tipiko bat osatzen dute, Taipeiko bere apartamentua Min-Minen ama zaharrarekin partekatzen duena. Njk 45 urte ditu eta bazkide gisa lan egiten du aurreko urtean etekin handiak lortu zituen enpresa informatiko batean, baina laster porrot egin lezake estrategia aldatzen ez badu. Dena okertuko da Jianentzat Min-Minen anaia, Ah-Di, ezkontzen denean. Dituzten arazo guztien artean bizitza zein ederra den eta nola zaindu behar den ikasi behar dute, bizi behar dugun egoera edozein dela ere.

"Film hau bizitzari buruzkoa da, bere zentzurik intimoenean erretratatu. Sinpletasuna da guztiaren oinarrian kokatzen dena eta konplikazioak gainean daude "adierazi zuen Edward Yangek berak" tristura eta zoriona, maitasuna eta desamodioa, itxaropena edo etsipena, hilketa edo laztanak maila berean jorratzen diren film bati buruz".

Zuzendaritza eta gidioa: Edward Yang

Argazkilaritza: Yang Wei-Han

Musika: Peng Kai-Li

Antzezleak: Wu Nien-jen, Elaine Jin, Kelly Lee, Jonathan Chang, Chen Hsi-Sheng, Issei Ogata, Ko Su-Yun, Tao Chuan-Cheng, Hsiao Shu-Shen, Tsen Hsin-Yi, Joyce Tsui

Herrialdea, Urtea | **Iraupena**
Taiwan, 2000 | 173 min

Hizkuntza

B.O mandarinez eta taiwandarrez, azpituak espainieraz

Aurkezpena: **Jaume Claret Muxart**

PUNTO DE VISTA



Apirilaren 20tik 25era Punto de Vista, Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdiaren 20. edizioa ospatu zen Iruñean. Maiatzeko Foco Punto de Vista saioan jaialdiko Sail Ofizialean saritutako filmen aukeraketa bat proiektatuko da.

Zinemazaleak mundu osoko profesionalekin elkartzen dira urtean astebetez Iruñean, zinema dokumentalaren azken joerak ezagutzeko eta ikus-entzunezko praktika berriei buruz hausnartzeko espazio bizigarri eta aktibo baten bila. Punto de Vistak obren aukeraketa zaindua proposatzen du, kalitatea eta sormen-arriskua ezaugarri dituen.

Hemezortzi nazionalitateetako hemeretzi film aurkeztu ziren jaialdiaren proposamenik nabarmenenean eta konprometituenean, Sail ofizialean. Filmak Argentina, Mexiko, Japonia, Espainia, Qatar, Grezia, Iran, Erresuma Batua, Txile, Italia, Austria, Bielorrusia, Kuwait, Kirgizistan, Grezia, Frantzia, Portugal edo Belgika bezalako herrialdeetatik etorritako 900 filmen artean aukeratu ziren.

Zazpi film luze, metraje ertain bat eta hamaika film labur, lau mundu mailako estreinaldi, nazioarteko estreinaldi bat eta Espainiako hamalau estreinaldi barne.

Osteguna 28 | 19:30h.

PUNTO DE VISTA

FILMOTECA
EN NAVARRA

FILMOTEKA
NAFARROAN

Tafalla

Centro Cultural *Kulturgunea*

Maiatzak 6 Mayo
19:00



Ciclo de Cine Europeo:

TRES KILOMETROS AL FIN DEL MUNDO

Presentación y coloquio - *Aurkezpena eta solasaldia*
Julio Mazarico


FILMOTECA
EN NAVARRA
FILMOTEKA
NAFARROAN

Auritz-Burguete

Casa de Cultura / Kultur Etxea

Maiatzak **22** Mayo

19:00



Ciclo de Cine Europeo:

LA MERCANCÍA MÁS PRECIOSA

Presentación y coloquio - Aurkezpena eta solasaldia
Cristian Ruiz

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Prezioak

- **Saio berezia** Matronas (maiatzak 5): Sarrera doan
- **Zinema arkitektura zikloa** (maiatzak 6, 13, 20, 27): Sarrera doan
- **Europako zinema zikloa** (maiatzaren 9, 16, 23 eta 30ean): Sarrera doan
- **Nafarroako filmoteka** (maiatzaren 7an eta 14an): 1 €
- **Beste saioak:** 3€.
- **10 SARRERAKO ABONAMENDUA** (6 hilabeterako balio du): 20€.

Abonamenduek ez dute esan nahi saioetarako sarrerak erreserbatzen direnik, Filmotekako leihatilan sarrerak eskuratzeko eskubidea baizik, betiere dagokion saiorako sarrerak geratzen badira. Beraz, lehiatilara behar besteko aurrerapenarekin iristea gomendatzen da, sarrerak eskuratzeko.

Sarreraren salmenta

- **Lehiatilan:** Saioa dagoen egun guztietan. Lehiatilaren irekiera saioa hasi baino 45 minutu lehenago.
- **Internet bidez:** www.filmotecanavarra.com webgunean (saioa hasi baino ordu erdi lehenago arte).
- **Telefonoz:** 679 968 580

Saioa hasi ondoren, ez da sarrerarik kaleratuko eta ez da aretora sartzen utziko.

Bizikidetzeta eta higiene onaren alde, ezin da janaririk edo edaririk kontsumitu proiektzio-aretoaren barruan.

Programa aldaketei lotuta dago. Gerta daitezkeen gorabehera guztiak www.filmotecanavarra.com webgunearen bidez jakinaraziko dira.

Proiektzioak

Filmak jatorrizko bertsioan proiektatzen dira, gaztelaniazko azpitituluekin. Nafarroako Filmotekak akordio bat du EOIPrekin, ikasleei saioetarako sarbidea errazteko.



Informazio gehiago
www.filmotecanavarra.com



NAFARROAKO FILMATEGIA

Nafarroako Liburutegiaren eta Filmategiaren Eraikina

Antonio Pérez Goyena pasealekua, 3. 31008 Iruñea.

Tel: 848 424 759. filmoteca@navarra.es